



BILBOO 24  
FINAL

UEFA WOMEN'S CHAMPIONS LEAGUE-KO  
FINALAREN INPAKTU-TXOSTENA  
BILBO 2024

TXOSTEN EXEKUTIBOA  
2024ko urria

# AURKEZPENA

2024ko maiatzaren 25ean Bilbok, Bizkaiak eta Euskadi Women's Champions League-ko Finala hartu zuten. Partidua San Mames futbol-zelaian jokatu zen, eta FC Bartzelona eta Olympique Lyon izan ziren aurrez aurre. Lehenengoak 2-0 irabazi zuen. Egun hori historiara pasako da zaletasunak deitzeko izan zuen gaitasunagatik, eta orain arteko bertaratze-errekorra gainditua izan zelako; 50.827 ikusle estadioan.

Finala Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak sustatu zuten. Aukera hori ekitaldi handiak erakartzeko estrategiaren barruan kokatzen da, tokiko ekonomia, enpleguaren sorrera, kudeaketan esperientzia eskuratzea eta tokiko enpresak mota horretako erakundeei lotutako berrikuntzaren eta espezializazioaren bidean sartzea bultzatzeko.

Beste helburu batzu ere garrantzitsuak ziren. Besteak beste, herritarrak aktibatzea eta kirol-ekitaldian integratzea. Horretarako, hainbat jarduera eta komunikazio-kanpaina egin ziren, eta horiei esker, 22.000 zale gehiagok parte hartu zuten kalean..

Europako emakumezkoen futbolaren Final handiak, gainera, aukera faktore berri bat gehitzen du. Euskal gizartea aukera-berdintasunaren arloan ari da lanean. Eta erakundeek, zaleek eta herritarrek arrasto sakona espero dute ekitaldi honetatik.

Bilatzen zen bultzada eraldatzailearen barruan, nabarmentzekoa da Finala herritarren ospakizuna izan dela, emakumeek futbolearen duten ikusgarritasunagatik. Euskadin, duela hamarkada batzuetatik hona, kirol hori aitortzeko borrokan aritu diren emakume aitzindariak garatu dute emakumezkoen futbola. Gaur egun, emakumezkoen futbol-klubuen ehuna zabala da lurralde osoan, eta horrek etorkizun oparoa iragartzen die egungo eta hurrengo belaunaldiei, konplexurik gabe amets egiteko benetako aukerak baitituzte.

*Txosten hau Ikertaldekin burutu du, Bilboko Udalaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren eskaera jarraituz.*

# FINALA ZENBAKIETAN

## PARTAIDETZA

**72.518**

pertsona mobilizatuta

**% 58**

emakumeak

**50.827**

BERTARATU DIRA  
FINALERA

ERABATEKO  
ERREKORRA

**21.691**

giroagatik eta  
sarrerarik gabe

## ESPERIENTZIA

**8,6**

-ko balorazioa  
(Otik 10era)

Sortutako turismoaren

**% 71k**

biziki gomendatuko du  
Bilbo

**% 90**

-eko gogobetetzea  
Euskadiko eta Bilboko  
turismo-eskaintzaren  
kalitatearekin

Mugitutako turismoaren

**% 74**

itzuliko da

## ERAGIN EKONOMIKOA

**23,0 milioi euro-KO ERAGIN  
EKONOMIKOA EUSKADIN**

**17 aldiz**

euskal erakundeek aplikatutako  
aurrekontuaren gainean lortutako  
itzulera (ROI)

**9,9 milioi euro**

-ko gastua EAEko ekonomian,  
mobilizatutako turismoak eta  
txangozaleek eraginda

## GIZARTE- ERAGINA

**% 76**

-k uste du ekarpen ona  
izan dela genero-  
berdintasunaren  
aldeko lanean.

Euskadiko herritarren  
**% 81**

pozik daude emakumeen kirol-  
ekitaldi handi bat hartzearekin

Euskadiko Herritarren  
**% 80k**

uste dute Euskadik ekitaldi handiak  
antolatzeko duen gaitasuna  
hobetuko duela

# PARTAIDETZA-ERREKORRA



UWCL24-ko Finalak 72.000 lagun baino gehixeago mobilizatu zituen. Horietatik 50.827 partidura joan ziren, eta parte-hartze historikoaren errekorra ezarri zuten klubuen arteko Europako emakumezkoen txapelketa nagusiko Final batean.

Partidara joateaz gain, giro alaian parte hartu nahi izan zuten 22.000 pertsona gehiago erakarri zituen ekitaldiak, bi taldeen -FC Bartzelona eta Olympique Lyon- zaleekin nahastuz eta antolakuntzak antolatu zituen jardueretan parte hartuz.

Mobilizatu zirenen % 58 emakumeak izan ziren –% 60 partidua in situ ikusi zutenen artean–. Mugarri garrantzitsua izan zen, parte-hartzaileek nabarmendu zutena, lehiaketa horien jarraipenean pertsona eta balio berriak gehitzea dakarrelako.


**Azterlanaren aipamen espontaneoan % 41ek lortutako "giroa" goraipatzen zuten: atsegina, familiarra, kolaboratzailea**

Euskal biztanleriak garrantzi handia izan zuen mobilizazio horretan. 25.000 euskal herritarrek parte hartu zuten, ia erdiek (% 43) partidura bertaratuz. Gainerakoen artean, azpimarratzekoa da kataluniarren jendetza handia, Estatu osotik zetozen 39.000 lagunetatik 20.700 inguru.


Ostatu-gau gehienak (% 84) Bizkaian eman ziren, batez ere Bilbon, eta hotel-sarean (% 55) eta apartamentu turistikoetan (% 25) kokatu zen batez ere.

# MOBILIZAZIO TURISTIKOA

Jatorrizko merkatuak



**GAUA IGAROTZEN DUTE**




**Aprobetxatzen dute turismoa egiteko**

Ekitaldiak eragin turistikoa handia izan du:

- **Berehalakoa**, ia 34.000 lagun, batez beste 2,3 gau igaro dituzte Euskadiko hainbat tokitan. Pertsona horien % 76k Bilbo eta Euskadiko beste herri batzuk ezagutzeko eta aisialdiko eta kulturako jardueretan inplikatzeko aprobetxatzen du.
- **Potentziala**, kontuan hartuta % 72k itzultzeko prest dagoela, eta gomendio-maila estandarizatua (NPS) +68 dela (-100 eta +100 arteko eskala batean).

Euskadira itzultzeko itzaropena 5 urtean




Zenbateraino gomendatuko zenuke Bilbo helmuga turistikoa gisa senide eta lagunentzako artean?

**Net Promoter Score (NPS)**  
Puntuazioa (-100etik +100era)

**68**

2,7%  
26,2%



# 23,3 milioi euroko ERAGIN EKONOMIKOA

Euskal ekonomian 23,0 milioi euroko ekoizpena sortu du. Tokiko antolaketaren aurrekontua baino 18 aldiz gehiago dira: 1.282.206,35 €

Urteko enpleguari dagokionez, sortutako ekoizpena 204 kontratu sortzearen baliokidea da.

AZALPENA	ZENBATEKOA (€-tan)
<b>ERAGIN ZUZENA</b> (antolaketa-gastua Euskadin)	5.592.582
<b>ZEHARKAKO ERAGINA</b> (turisten, txangozaleen eta mobilizatutako euskal herritarren gastua)	9.945.052
<b>ERAGIN INDUZITUA</b> (bitarteko ekoizpenak balio-katean)	7.423.850
<b>EKOIZPENA GUZTIRA</b>	<b>22.961.484</b>
BPG	13.179.021
ZUZENEKO ITZULERA ADMINISTRAZIOETAN	4.373.579

## LORTUTAKO DIRU-SARREREN BANAKETA:

- **5.592.582 euro ekitaldiaren antolaketaren kontura sartutako zenbatekoei dagozkie:** tokiko antolakuntzak, RFEFak edo UEFAk euskal enpresei zerbitzuak kontratatzea, eta ekitaldiaren antolaketarekin lotutako eta eragina neurtzeko eremutik kanpoko ohiko bizilekua duten pertsonen egonaldia Euskadin.
- **9.945.052 euro publikoak mobilizatzeari dagozkio.** Partidura joan diren pertsonen kontsumoak dira, baita Finala egiteko espresuki antolatutako girotze gunetara hurbildu diren pertsonenak ere.
- **7.423.850 euroko inpaktua eragin du ekonomian.** Zuzeneko eta zeharkako eraginen baturak tarteko ekoizpenak eragiten ditu balio-katean zehar elkarri lotutako sektoreetan. Bitarteko ekoizpen hori sektore-erlazioko eredu estandar baten bidez kalkulatu da, euskal estatistika ofizialaren arabera.

# ERAGIN EKONOMIKOAREN BANAKAPENA

## 22.961.484 € GUZTIRA EKOIZPENEAN

### 5.592.582 € ANTOLAKUNTZAGATIK

Tokiko antolakuntzaren kontratazioak	1.167.650 €
Beste erakunde batzuen kontratazioak	1.754.424 €
Antolakuntzaren kontsumoak eta ostatu-gauak	2.670.508 €

82

Euskadiko enpresak

107

enpresa kontratatu dituzte antolakuntzan parte hartu duten erakunde guztiek\*

25

Beste toki batzuetako enpresak

### 9.945.052 € MOBILIZAZIOAGATIK

Ostatu-gauak	3.725.993 €
Ostalaritza	3.750.258 €
Merkataritza	997.800 €
Garraioa	1.056.838 €
Turismo-jarduerak eta bestelakoak	414.163 €

Partidara bertaratuak	8.783.342 €
Giroagatik bertaratuak	1.161.710 €

### 7.423.850 € BITARTEKO EKOIZPENAGATIK

BPGd **	13.179.021 €
BEGd ***	11.894.423 €
Bildutako zergak eta bestelako berreskurapenak	4.373.579 €



Produktuen gaineko zerga garbiak	1.284.598 €
Sozietateen gaineko zerga	687.498 €
Gizarte Segurantza	1.652.135 €
PFEZ	749.349 €

## 211 ENPLEGU BERRIAK

ad hoc, tokiko antolakuntzak kontratatutako 41 enpresen aldetik

\* Euskal erakunde sustatzaileak, UEFA, eta RFEF.

\*\* Produktzio finalistaren zatia (errenta), balio-katean bitarteko ekoizpena deskontatu ondoren

\*\*\* Behin BPGd-tik kenduta zeharkako zerga garbiei dagokien zatia (BEZa eta beste batzuk)

# ERAGIN MEDIATIKOA

2024ko UEFA Women's Champions League-ko Finalak 4.512 inpaktu izan ditu prentsan, irratan, telebistan eta sare sozial garrantzitsuetan 2024ko urtarrilaren 1etik maiatzaren 27ra bitartean.

Inpaktu horien balio ekonomiko<sup>1</sup> metatua 39,1 milioi eurokoa da, eta berri bakoitzeko batez besteko balioa 8.674,34 eurokoa. Audientzia metatua 27.507.980.281 irakurlekoa da.

Aipamen gehienak hedabide digitaletan egin dira (inpaktuen % 49). Ondoren, sare sozialak daude (% 23) eta, neurri txikiagoan, prentsa inprimatua (% 13) eta ikus-entzunezko baliabideak (% 15).

Aipamen bezala, % 43 nazioarteko estaldura-komunikabideetan sortu dira.

Estatuko prentsak aipameneren % 29 hartzen ditu sare sozialengatik, eta tokiko/eskualdeko prentsa, berriz, inpaktu guztien % 28.

Aipamenak komunikabide orokorretan ematen dira batez ere (% 79).

Inpaktuak ekitaldiaren inguruko egunetan kontzentratu ziren, bereziki 2024ko maiatzaren 25ean.

MOTA	INPAKTUAK	%	AUDIENZA	%	BALIOA	%
Hedabide digitalak.	2.211	49,0	27.053.184.849	98,4	33.919.306 €	86,7
Sare sozialak	1.062	23,5	204.343.358	0,7	912.967 €	2,3
Prentsa idatzia	574	12,7	163.810.000	0,6	3.478.025 €	8,9
Irratia	440	9,8	34.108.127	0,1	438.087 €	1,1
Telebista	225	5,0	52.533.947	0,2	390.222 €	1,0
<b>Guztira</b>	<b>4.512</b>	<b>100</b>	<b>27.507.980.281</b>	<b>100</b>	<b>39.032.030 €</b>	<b>100</b>

<sup>1</sup> Publizitate-balio baliokidea, edo erreserbaren kostu-balioa eta ekitaldiaren ordeko komunikaziorako publizitate-espazioak erabiltzea.



# ESPERIENTZIA

UWCL24-ko Finala oso esperientzia positiboa izan zen, bai globalki hartuta (8,6), bai bildutako bi publikoentzat: sarrerarekin joaten zirenentzat (8,7) eta girotze-guneetara Finala zaleekin bizitzeko hurbildu zirenentzat (8,4).

Emaitza ona berdina izan da jarduera-arloen arabera, eta, gainera, lan positiboa egin da bertaratuek garrantzitsuentzat jotzen dituzten alderdietan. Estadioaren kalitatea (9,2), sarreraren irisgarritasuna (9,0), hiriaren eskaintza (ostalaritza eta kultura), antolatutako Fan Meeting Pointak, antolaketak emandako erraztasunak eta herritarrak giroan integratzea nabarmentzen dira.

## PARTIDUA

**8,5**

Estadioa	9,2
Fan Meeting Points	8,6
Zeremoniak	8,0
Babesleen jarduerak	8,0

## BILBO

**8,5**

Ostalaritza	8,8
Turismo-eskaintza	8,7
Kalitatea – prezioa	8,0

## ERRAZTASUNAK

**8,5**

Prezioa	9,0
Herritarren laguntza	8,7
Antolamendua (seinaleztapena, aparkalekua, informazioa)	8,6
Sarrerak erosteko prozesua	7,6

## JASANGARRITASUN

**7,8**

Birziklatzea eta garbiketa	8,0
Finalari (emakumezkoena) emandako garrantzia	7,6



**-ko balorazioa**  
(0tik 10erako eskala)

ESPERIENTZIA  
POSITIBOA



**PARTIDARA  
BERTARATUTAKOEN  
ARTEAN**



**GIROARI LOTUTAKO  
PERTSONEN ARTEAN**

# FINALAK EUSKAL HERRITARRENTZAT DUEN GARRANTZIA

## Hazkunde ekonomikorako aukera

Euskal herritarrek ekitaldiarekin lotuta sentitzea lortu da.


**% 81 pozik agertu da** UWCL24-ko Finala egitearekin **-% 57 OSO pozik-**, baina, gainera, gehiengo zabal batek, ekitaldiak ondare ekonomiko esanguratsua uztea, espero du.

- Herrialdearen irudia hobetzen, ekitaldi handien antolatzaile gisa (**% 81eko babes**a).
- Ekitaldiak tokiko ekonomia sustatzeko duen gaitasunagatik, bai sortutako injekzio ekonomikoaren bidez, bai tokiko enpresen parte-hartzearen bidez (**% 81eko babes**a).




**POZIK DAUDE EKITALDI HONEKIN**

Hiriaren irudia hobetuko du mota guztietako ekitaldiak egiteko



Positiboa izango da tokiko ekonomiarentzat




# FINALAK EUSKAL HERRITARRENTZAT DUEN GARRANTZIA

## Berdintasunezko gizarte baterako aukera

EAEko herritarrek, Euskal erakundeek dituzten itxaropenekin bat egiten dute UWCL24-ko Finalak euskal gizarteak izan dezakeen ondareari dagokionez.\*

Eragin potentzialeko 5 eremu aurkitu dira, horietako bi emakumezkoen futbolarekiko arretari buruzkoak, eta beste hiru genero-berdintasunaren aldeko lanari buruzkoak. Horientzat guztientzat, inpaktu-itxaropen handiak daude:

- Emakumezkoen kirolari emandako arreta hobetzea espero da (% 72), baita erakundeen laguntzak handitzea ere (% 57).
- Emakumezkoen kirola hobeto baloratzea espero da (% 79), eta nesken artean zaletasun eta parte-hartze handiagoa erakartzea (% 81). Genero-berdintasunaren aldeko lanaren esparruan Finalaren antolakuntzak duen zeregin positiboari buruzko adostasuna dago (% 76).



# LABURPEN EXEKUTIBOA

72.000 pertsona baino gehiago mobilizatu dira, horietatik 50.827 estadión izan zirelarik. UWCL24-ko Bilboko Finalak aurreko bertaratze-errekorra hautsi du.

Arrakasta horrek erronka bikoitzari erantzuten dio:

- Klub finalisten, FC Bartzelonaren eta Olympique Lyonen, zaleak mobilizatzea lortu da, guztion artean egindako antolaketa-ahaleginagatik seguruenik
- Euskal zaleak mobilizatzea lortu da, bai Finalera joanez, bai girotze guneetara zenbaki handietan hurbilduz.

## ERAGIN EKONOMIKOA

Finalak 23,0 milioi euroko inpaktu ekonomikoa sortu du, EAEko BPGd-ari 13,2 milioi euro gehituta, Administrazioan itzulkin ekonomiko zuzena 4,4 milioi eurokoa izanik. Ekoizpen-zifra hori tokiko antolakuntzaren aurrekontua baino 17 aldiz handiagoa (Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak, hiruren artean gastatutako diru kopurua).

Gainera, hainbat sektoretako 82 euskal enpresak beren produktu eta zerbitzuak eskaini dituzte, antolakuntzan parte hartzen duten erakundeek kontratatuta. Parte-hartze horrek euskal enpresa-ehunaren gaineko injekzio ekonomikoa suposatu du, balio handiko prozesuak eta produktuak garatzeko aukera izanik.

Bestalde, pertsonak mobilizatzearen ondorioz lortutako diru-sarrerak sektore desberdinetan sakabanatu dira: turismo-establezimenduak, ostalaritza,

askotariko merkataritza– elikadura, norberaren zaintza, arropa, produktu turistikoa–, aisialdiko edo garraioko jarduerak –gasolina, garraio publikoa eta abar–.

Ekitaldi handiek euskal ekonomia garatzeko duten aukerarekin gizarte adostasun zabala dagoela nabarmentzea garrantzitsua da. Herritarren % 81ek tokiko ekonomiarako eta enpresa-garapenerako funtsezko injekzio gisa definitzen ditu. \*Horrelako ekitaldiek Euskadi antolatzaileen liga eskusibo batean kokatzeko balio dutela uste du antzeko kopuru batek.

Horri dagokionez, erakundeen eta herritarren itxaropenen arteko lerrokatze sendoa ikusten da.

Azkenik, komunikabideen eragina aipatu behar da, 39 milioi eurotik gorakoa.\*\*

# LABURPEN EXEKUTIBOA

## POSIZIONAMENDU TURISTIKOA

Ekitaldiak 33.700 turista erakarri ditu, bai Euskadin eta, bai inguruko komunitateetan gaua igaro duten pertsonak. Gaua igaro dutenen % 84 inguru Bizkaian egin dute gaua.

Agian garrantzitsuena, turismo horren zati handienak (% 76) portaera konplexuagoa izan duela litzateke; Partidura joatea baino, herriz herri ibili da, kultura- eta aisialdi-eskaintza turistikoan parte hartu du, eta tokiko ekonomian eragina izan du.

Gainera, badirudi ekitaldia etorkizunerako pizgarri turistikoa izan daitekeela. Pertsona horietako askok (% 72) Euskadira oporretan itzultzea oso posible dela uste dute. eta, gainera, aurreikus daitekeen eragin sustatzaile bat gehiago izango dutela gertuko inguruneetan, Bilboko eta Euskadiko gomendio-indize handia ikusi baita (+68).

## GIZARTE-KOHESIOKO EFEKTUA

Herritarrek asko balioesten dute Finala egitea (% 81), emakumezkoen kirola, lehen aipatutako itxaropen ekonomikoekin bat egiten bait du.

Berdintasunezko gizarte baten baitan, erakunde antolatzaileek espero duten ondarea euskal futbolaren, elkarteen eta, batez ere, euskal herritarren federazio-erakundeek partekatzen dute.

Ekarpen handia egitea espero da, honako hauei dagokienez:

- Erakundeek arreta handiagoa jartzea futbolean eta, oro har, emakumezkoen kirolean, teknifikazioan, instalazioetan eta profesionalizazioan eragina izan dezan.
- Emakumezkoen futbolaren balorazio handiagoa, eta bi norabidetan: herritarren artean emakumezkoen kirolaren erakargarritasuna handitzea, eta haien maila profesionalizazio-maila eta aitortzea.

- Ekitaldiak nesken artean futbolaren erakargarritasuna areagotzea espero da. Erreferenteak sortzeari eta dauden aukerak ikusteari esker.

Arrazoi horiengatik, gizarte-adostasuna dago ekitaldia genero-berdintasunaren helburuetan urrats eraginkorra dela esatean.

Gutxienez, parte-hartzaileen % 58 emakumeak izan ziren. Ehuneko hori % 60ra igotzen da partidura bertaratu direnen kasuan.

Nolabait, futbol zaletasun multzo berri bat erakartzea eta sendotzea lortu da, balio familiar eta kooperatibo berriekin.

# LABURPEN EXEKUTIBOA

Izan ere, bertaratukoek gehien goraipatzen duten puntutako bat lortutako giroa izan da, parte-hartze alai, segurua eta familiarra, gizonezkoen antzeko ekitaldiekin kontrastean –partzialki–.

UWCL24-ko Finalak boluntariotzara jo du antolaketa-lanetan,. Ekarpen horretaz, Bizkaia gara elkarte arduratu zen, Bizkaiko Lurraldean ekitaldi handiak antolatzeko ohiko lankidetzaren barruan.

Lankidetzaren horren bidez, bazterketa-arriskuan dauden kolektiboek harreman proiektu batean parte hartzeko aukera eman zitzaizkien, Euskal Herritarren aurrean komunitatean lan bat egiteko eta ikusgaitasuna izateko aukera.

## METODOLOGIA

UWCL24-ko Finalaren eraginari buruzko txostenak lehen mailako eta bigarren mailako informazio-iturriak behar izan ditu.

### **Lehen mailako iturriak:**

- 1) Ekitaldiaren antolakuntzatik datozen datuak.. Enpresen kontratazioa eta Euskadin bizi ez diren eta gau bat edo gehiago igaro zuten pertsonen kontingenteak.
- 2) Ekitaldia sustatzen eta/edo laguntzen duten erakunde eta pertsonekin izandako elkarrizketak. 6 elkarrizketa egin ziren.
- 3) Partiduan parte hartu duten pertsonen, sortutako girora hurbildu diren pertsonen eta euskal herritarrek betetako inkestak.

Bertaratzearen ezaugarriak buruzko oinarriko datuak egituratzeko, txostenean 1.301 inkesta egin zaizkie hiru kolektibo horiei, Inkesta horiek, giroa bizitzera hurbildu ziren pertsonak kuantifikatzeko datuak eman zituen

### **Bigarren mailako iturriak:**

Txostenak Eusko Jaurlaritzaren, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailera, Ibiltur operazioetara jo du. Baita ere EUSTATen Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta, EUSTATen Euskadiko Input-Output taulak, EINen Kontsumoko Prezioen Indizeen taulak, eta horrelako gertaerak ebaluatzeko erreferentziako beste azterlan batzuk.

Eragin ekonomikoaren ebaluazioak hiru etapako ereduari jarraitzen dio: ekitaldiaren antolaketari lotutako gastuak zehaztea, mobilizatutako pertsonen egindako kontsumoak eta erosketak zehaztea, eta UWCL24-ko Finalak ekarri dituen zerbitzuen, produktuen eta kontsumoen kontratazioek sektoreen arteko balio-katean zehar sortutako bitarteko ekizpenak zehaztea.



BILBAO 24  
FINAL

GRACIAS  
ESKERRIK ASKO